

**CÓMO AUMENTÓ EL ODIO ENTRE
MARTÍN ZALACAÍN Y CARLOS OHANDO**

Cuando murió Tellagorri, Catalina de Ohando, para entonces ya convertida en mujer, habló con su madre para que acogiera en casa a la Ignacia, la hermana de Martín. Era Ignacia, según se decía, un poco presumida y estaba acostumbrada a los pipos de la gente de casa de Arcale.

El miedo de que la muchacha, si seguía en la taberna, pudiese echarse a perder, influyó en la señora de Ohando para llevar a Ignacia a su casa de sirvienta. Tenía la intención de echarle sermones hasta quitarla todos las malas costumbres y llevarla por el camino de la más estrecha virtud.

Figurando que iba a ver a su hermana, Martín estuvo varias veces en casa de Ohando y habló con Catalina y doña Águeda. Catalina seguía hablándole de tú y doña Águeda le manifestaba amabilidad y benevolencia.

En el verano se presentó Carlos Ohando, llegado de vacaciones del colegio de Oñate.

**NOLA AREAGOTU ZEN MARTIN
ZALAKAIN ETA KARLOS OHANDOREN
ARTEKO GORROTOA**

Tellagorri hil zenean, Ohandoko Katalinak, emakumetuta ordurako, amarekin hitz egin zuen Ignazia, Martinen arreba, etxean har zezan. Ignazia, esan ohi zenez, harrotxo zen, eta Arkalaren etxeko jendearen konplimenduekin zegoen ohituta.

Tabernan jarraituz gero neskatzak galdu zitekeelako beldurrak izan zuen eraginik Ohandoko andrearengan Ignazia bere etxera neskame eramateko. Hari sermoiak botatzeko asmoa zuen, ohitura txar guztiak kendu, eta bertuterik zorrotzenaren bidetik eraman arte.

Arreba ikustera zihoala-era, Martin zenbait bider joan zen ohandotarren etxera eta Katalinarekin eta andre Agedarekin hitz egiten zuen. Katalinak oraindik ere hika egiten zion eta andre Agedak adeitasuna eta ongi-nahia erakusten zizkion.

Udan Karlos Ohando agertu zen, Oñatiko ikastetxetik oporretan etorrita.

Pronto se dio cuenta Martín de que, con la estancia fuera, el odio que le tenía Carlos en vez de disminuir había aumentado. Al notar aquel sentimiento de hostilidad, dejó de ir a casa de Ohando.

— No vienes ahora a vernos --le dijo alguna vez Catalina, al encontrarle en la calle.

— No voy, porque tu hermano me odia – le contestó claramente Martín.

— No lo creas.

— ¡Bah! Bien sé yo lo que me digo.

Laster konturatu zen Martin Karlosek zion gorrotoa, kanpoko egonaldiarekin, handitu egin zela gutxitu beharrean. Areriotasun-sentimendu hura nabaritzean, Martinek utzi egin zion ohandotarren etxera joateari.

-Orain ez haiz gu ikustera etortzen-esan zion inoiz Katalinak, kalean topo eginda.

-Hire anaiak gorroto nauelako ez naun joaten- erantzun zion argi Martinek.

-Ez horrelakorik pentsatu.

Ba! Ondo zekinat nik zer esaten dudan.

El odio existía. Se manifestó primeramente en la pelota.

Tenía Martín un rival, un chico navarro, de la Ribera del Ebro, hijo de un carabinero.

A aquel rival le llamaban el Cacho, porque era zurdo.

Carlos de Ohando y algunos condiscípulos suyos, carlistas que se tenían a si mismos por aristócratas, comenzaron a proteger al Cacho y a picarlo y a azuzarlo contra Martín.

El Cacho tenía un juego furioso de hombre pequeño é iracundo; el juego de Martín, en cambio, era tranquilo y reposado, propio del que está seguro de sí mismo.

Eran dos tipos, Zalacaín y el Cacho, completamente distintos; el uno, la serenidad y la lucidez del montañés, el otro, la rabia y la viveza del ribereño.

Gorrotoa bazen. Pilotan agertu zen aurrena.

Bazuen Martinek arerio bat, mutil nafar bat, Ebroko Erriberakoa, karabinero baten semea.

Arerio hari Katxo deitzen zioten, ezkerra zelako.

Karlos Ohandokoa eta haren ikaskide batzuk, beren burua aristokratatzat zuten karlistak, Katxo hura babesten hasi ziren, zirikatzen eta Martinen kontra xaxatzen.

Katxok gizon txiki eta suminkorraren joko amorratua zeukan; Martinen jokatzeko modua, berriz, lasaia eta sosegatua, bere buruaz seguru dagoenarena zen.

Bi eredu ziren, Zalakain eta Katxo hura, guztiz diferenteak; bata, menditarraren baretasuna eta buruargitasuna zuen; besteak, Erriberakoaren amorrua eta bizitasuna.

Semejante rivalidad, bien utilizada por Ohando y los señoritos de su cuerda, terminó en un partido que propusieron los amigos del Cacho. El desafío se concertó así; el Cacho é Isquiña, un jugador viejo de Urbia, contra Zalacaín y el compañero que éste eligiera. El partido se jugaría a cesta y serían diez juegos.

Martín eligió como zaguero a un muchacho vasco francés que estaba de oficial en la panadería de Archipi y que se llamaba Bautista Urbide.

Bautista era delgado, pero fuerte, de gran tranquilidad y muy dueño de sí mismo.

Se jugó mucho dinero por ambas partes. La mayoría del elemento popular de Urbía y los liberales estaban del lado de Zalacaín y Urbide; en cambio, los señoritos, el sacristán y los carlistas de los caseríos por el Cacho.

Halako areriotasuna, Ohandok eta haren sokako jauntxoek ederki baliatua, Katxoren lagunek proposaturiko partida batean bukatu zen. Hona nola hitzartu zuten erronka: Katxo eta Izkina, Urbiako pilotari zahar bat, Zalakainen eta hark aukeratutako lagun baten kontra. Partida xisteraz jokatu zen eta hamar jokaldi izango ziren.

Martinek mutil frantses-euskaldun bat aukeratu zuen atzelari, Artxipiren okindegian ofiziale zegoena eta Bautista Urbide deitzen zena.

Bautista mehea zen, baina indartsua, sosegu handikoa eta oso bere buruaren jabe.

Diru asko jokatu zen, bi aldeetatik. Urbiako jende arrunta eta liberalak Zalakain eta Urbideren alde zeuden gehienak; Katxoren alde berriz jauntxoak, sakristaua eta baserrietako karlistak.

La lucha principal sería entre los dos delanteros, entre Zalacaín y el Cacho. El Cacho ponía de una parte su nervio echando la pelota baja y arrinconada, su furia; Zalacaín se fiaba en su serenidad, y en la fuerza de su brazo; gracias a esa fuerza podía lanzar la pelota a lo lejos.

La montaña iba a pelear contra la llanura.

Comenzó el partido con una gran expectación; los primeros juegos los llevó a la carrera el Cacho, tirando las pelotas como balas justo encima de la raya, de tal modo que era imposible recogerlas.

A cada jugada maestra del navarro, los señoritos y los carlistas aplaudían locos de alegría; Zalacaín sonreía, y Bautista le miraba con cierto mal disimulado pánico.

Iban cuatro juegos por nada, y cuando parecía el triunfo del navarro casi seguro, la suerte cambió y comenzaron a ganar Zalacaín y su compañero.

Borroka nagusia bi aurrelarien artekoa izango zen, Zalakainen eta Katxoren artean. Pilota behetik eta zokoratua jaurtikitzen jartzen zuen Katxok bere urduritasunaren parte bat, bere amorrua; Zalakain bere baretasunarekin fidatzen zen eta bere besoaren indarrarekin, indar hari esker pilota urrutira bidali zezakeen eta.

Mendia ordokiaren kontra borrokatzera zihoan.

Ikusmin handiarekin hasi zen partida; lehenengo jokaldiak abailetan eraman zituen Katxok, pilotak justu-justu marraren gainetik balak bezala boteaz, halako moduan non ezin baitziren inola ere harrapatu.

Nafarraren jokaldi bikain bakoitzean, jauntxoek eta karlistek txalo egiten zuten pozez zoratzen; Zalakainek irribarre egiten zuen, eta Bautistak halako ikara gaizki disimulatu batez begiratzen zion.

Lau hutsari zihoazen, eta nafarraren garaipenak ia segurua ematen zuenean, suertea aldatu eta Zalakain eta haren laguna hasi ziren irabazten.

Al principio, el Cacho se defendía bien y remataba el juego con golpes furiosos, pero luego, como si hubiese perdido la habilidad, comenzó a hacer faltas tras faltas, de manera lamentable y el partido se igualó.

Entonces se empezó a ver que el Cacho é Isquiña perdían el juego. Estaban rendidos. El Cacho acometía la pelota con ira, hacía una falta y se indignaba; pegaba con la cesta en la tierra enfurecido y echaba la culpa de todo lo que sucedía a su zaguero.

Zalacaín y el vasco francés, dueños de la situación, estaban completamente serenos, se movían ligeros y reían.

— Ahí, Bautista --decía Zalacaín--.
¡Bien!

— Rápido, Martín --gritaba Bautista--. ¡Así!

El partido terminó con el triunfo completo de Zalacaín y de Urbide.

— ¡Vivan los nuestros! --gritaron los de la calle de Urbia aplaudiendo torpemente.

Hasieran, Katxok ondo defendatzen zuen berea, eta kolpe amorratuekin errematatzen zuen jokoa, baina gero, taxua galdu balu bezala, faltak egin eta egin hasi zen, modu negargarrian, eta partida berdindu egin zen.

Orduan Katxo eta Izkina jokoa galtzen ari zirela hasi zen ikusten. Jota zeuden. Katxok errabiaz ekiten zion pilotari, falta bat egin eta sutan jartzen zen; amorratuta, lurra jotzen zuen xisterarekin eta atzelariari leporatzen zion gertatzen ari zen guztiaren errua.

Zalakain eta frantses-euskalduna, egoeraren jabe, guztiz sosegaturik zeuden, lasterka arinean zihoazen eta barrez ari ziren.

Hortxe, Bautista – esaten zuen Zalakaínek -. Ondo!

Azkar, Martín – oiñu egiten zuen Bautistak -. Horrelaxe!

Zalakainen eta Urbideren erabateko garaipenaz amaitu zen partida.

Biba gutarrak! – oiñu egin zuten Urbiako kaletarrek, trakeskeriaz txalo eginez.

Catalina sonrió a Martín y le felicitó más de una vez.

— ¡Muy bien! ¡Muy bien!

— Hemos hecho lo que podíamos -
-contestó Martín sonriente.

Carlos Ohando se acercó a Martín,
y le dijo con mal ceño:

— El Cacho te juega mano a mano.

— Estoy cansado -le contestó
Zalacaín.

— ¿No quieres jugar?

— No. Juega tú si quieres.

Carlos, que había visto una vez más
el cariño que su hermana le tenía a Martín,
sintió avivar su odio.

Katalinak irribarre egin zion Martini
eta behin baino gehiagotan eman zizkion
zorionak.

Oso ondo, oso ondo!

Ahal genuena egin dinagu -
erantzun zion Martinek irribarrez.

Karlos Ohando Martinengana
hurbildu, eta esan zion kopeta ilunarekin:

Katxok esku huska jokatzen dik.

Nekatua nagok - erantzun zion
Zalakainek.

Ez al duk jokatu nahi?

Ez. Joka ezak hik nahi baduk.

Karlosek, bere arrebak Martini zion
adeitasuna ikusi baitzuen berriz ere,
gorrotoa biziagotzen sentitu zuen.

Había venido aquella vez Carlos Ohando de Oñate más fanático que nunca.

Martín andaba preocupado, queriendo seguir los consejos de Tellagorri y dedicarse al comercio; había dejado su oficio de cochero y entrado con Arcale en algunos negocios de contrabando.

Un día, una vieja criada de casa de Ohando fué a buscarle y le contó que la Ignacia, su hermana, andaba en amoríos con Carlos.

Si doña Águeda se daba cuenta de aquello despediría a la Ignacia, y el escándalo no traería a la muchacha nada bueno.

Orduko hartan, izan ere, sekula baino fanatikoago etorria zen Karlos Ohando Oñatitik.

Martin kezkatua zebilen, Tellagorriren aholkuei jarraitu eta salerosketan nola hasi asmatu nahian; kotxe-gidari ofizioa utzi eta Arkalerekin sartua zen kontrabandoko negozio batzuetan.

Egun batean, Ohandoko etxeko neskame zahar bat, bila joan eta Ignazia, arreba, maite-kontuetan zebilela Karlosekin, kontatu zion.

Andre Ageda hartaz konturatzen baldin bazen, despedida emango zion Ignaziari, eta eskandaluak ez zion atarramentu onik ekarriko neskari.

A Martín, al saber aquello, le entraron deseos de ir donde Carlos a insultarle y desafiarle. Luego, pensando que lo importante era impedir las murmuraciones, se le ocurrieron varias cosas, hasta que al último decidió que lo mejor sería ir a ver a su amigo Bautista Urbide.

Había visto al vasco francés muchas veces bailando con la Ignacia y le parecía que tenía alguna inclinación por la chica.

El mismo día que le dieron la noticia se presentó Martín en la tahona de Archipi en la que Urbide trabajaba.

- Oye, Bautista --le dijo.
- ¿Qué pasa?
- Tengo que hablar contigo.
- Te escucho --dijo el francés.

Martini, hura jakitean, Karlosengana joateko gogo sortu zitzaion, iraintzera eta erronka egitera. Gero, garrantzisuen esamesak eragozte zela pentsatuz, hainbat gauza bururatu zitzaizkion, harik eta atzenean Bautista Urbide bere adiskidea ikustera joatea izango zela hoberena erabaki zuen arte.

Askotan ikusi zuen frantses-euskalduna Ignaziarekin dantzan, eta neskarenganako joera zuela iruditzen zitzaion.

Albistean eman zioten egunean bertan azaldu zen Martin Artxipiren okindegian, han lan egiten baitzuen Urbidek.

- Hi, Bautista- esan zion.
- Zer da?
- Hirekin hitz egin behar diat.
- Aditzen diat- esan zuen frantseak.

— ¿A ti te gusta la Iñasi, mi hermana?

— ¡Mira el otro!... Pues claro. ¡Vaya pregunta! --exclamó Bautista--.

— ¿Te casarías con ella?

— Si tuviera dinero para establecerme por mi cuenta, con mucho gusto.

— ¿Cuánto necesitarías?

— Unos ochenta o cien duros.

— Yo te los doy.

— ¿Le pasa algo a la Ignacia?

— No, pero he sabido que Carlos Ohando la está cortejando. ¡Y como la tiene en casa!...

Conforme, conforme. Hábla tú con ella y, si ella quiere, está hecho. Nos casaremos en seguida.

-Gustatzen al zaik hiri Iñaxi, nire arreba?

-Hara bestea! Jakina. Hori galdera!- oihu egin zuen Bautistak.

-Ezkonduko al hintzake berarekin?

Gustura asko, neure kontura jartzeko dirurik izanez gero.

Zenbat beharko huke?

Laurogei edo ehun bat ogerleko.

Nik emango dizkiat.

Zerbait gertatu al zaio Ignaziari?

Ez, baina Karlos Ohandok kortejatzen duela jakin diat. Eta nola etxean daukan!

Konforme, conforme. Hitz egin ezak hik berarekin, eta nahi baldin badu, egina zagok. Segituan ezkonduko gaituk.

Se despidieron Bautista y Martín, y éste, al día siguiente, llamó a su hermana y le reprochó su arrogancia y su estupidez. La Ignacia negó los rumores que habían llegado hasta su hermano, pero al último confesó que Carlos andaba tras ella, pero con intenciones serias.

— ¡Con buen fin! --exclamó Zalacaín--. Pero tú eres tonta de remate, mujer.

— ¿Por qué?

— Porque te quiere engañar, nada más.

— Me ha dicho que se casará conmigo.

— ¿Y tú le has creído?

— ¡Yo! Le dije que te preguntaré a ti, pero él me ha contestado que no quiere que te diga a ti nada.

— Claro. Porque yo le arruinaría todos sus planes. Te quiere engañar, y quiere deshonrarnos, y que el pueblo entero nos desprecie porque me odia a mí. Yo no te diré más que una cosa; mira! si pasa algo entre ese sacristán y tú, no pararé hasta acabar con vosotros dos, y le pegaré fuego a la casa, aunque me metan en presidio para toda la vida.

Bautistak eta Martinek adio esan zioten elkarri, eta Martinek, hurrengo egunean, arrebari deitu eta bere laineza eta ergelkeria aurpegiratu zizkion. Ignaziak ukatu egin zituen anaiarenganaino heldu ziren esamesa haiek, baina atzenean aitortu zuen Karlos atzetik zebilkiola, asmo zintzoz ordea.

Asmo zintzoz! -Oihu egin zuen Zalakainek- Baina hi tuntun hutsa haiz, emakumea!

Zer ba?

Engainatu egin nahi haelako, besterik ez.

Nirekin ezkonduko dela esan zidak.

Eta hik sinistu?

Nik! Nik hiri galdetuko diadala esan zioat, baina berak ez duela hiri ezer esaterik nahi erantzun zidak.

Jakina, nik asmo guztiak zapuztuko zizkionat-eta. Hi engainatu nahi hau, eta guri ohorea kendu nahi zigun, eta herri osoak mespretxatzea, niri gorroto didalako. Nik gauza bat besterik ez dinat esango, hara: sakristau horren eta hire artean ezer gertatzen bada, jo-eta biak akabatuko zaituztedala, eta su emango zionat etxeari, baita bizitza osorako kartzelan sartzen banaute ere.

La Ignacia empezó a llorar, pero cuando Martín le dijo que Bautista tenía intención de casarse con ella, se le secaron pronto las lágrimas.

— ¿Bautista quiere casarse conmigo?--preguntó la Ignacia.

— Sí.

— ¡Pero si ese no tiene dinero!

— Pues ahora lo ha encontrado.

La idea del casamiento con Bautista no sólo consoló a la muchacha, sino que le pareció que le ofrecía un espléndido porvenir.

— ¿Y qué haré ahora? ¿Qué te parece? ¿Salir de la casa? --preguntó la Ignacia.

No, en principio sigue ahí, y dentro de unos días Bautista irá a ver a doña Águeda y a decirla que se casa contigo.

Ignacia negarrez hasi zen, baina Martinek esan zionean Bautistak esposatu nahi zuela, segituan lehortu zitzaizkion malkoak.

Bautistak nirekin ezkondu nahi du? - galdetu zuen Ignaziak.

Bai.

Baina horrek dirurik ez dauka-eta!

Ba orain aurkitu egin din.

Bautistarekin ezkontzeak, kotsolatu ez ezik, etorkizun oparoa eskaintzen ziola iruditu zitzaion neskari.

Eta zer egingo dut orain, zer iruditzen? Etxetik atera?- galdetu zuen Ignaziak.

Ez, hasteko segi hor, eta hemendik egun batzuetara joango dun Bautista andre Ageda ikustera eta hi esposatu behar hauela esatera.

En los días siguientes, Carlos Ohando vió que su conquista no seguía adelante, y el domingo, en la plaza, pudo comprobar que la Ignacia se inclinaba del lado de Bautista. La muchacha y el panadero anduvieron toda la tarde bailando como locos.

Poco después, Bautista Urbide se presentó en casa de Ohando, habló a doña Águeda, se celebró la boda, y Bautista y la Ignacia fueron a vivir a Zaro, un pueblecillo del país vasco francés.

Hurrengo egunetan, Karlos Ohandok bere konkistak ez zuela aurrera egiten ikusi zuen, eta igandean, plazan, frogatu ahal izan zuen Ignaziak Bautistaren alde egiten zuela. Neska eta okina erotzen ibili ziren arratsalde osoan elkarrekin dantzan.

Geroxeago, Bautista Urbide ohandotarren etxean agertu zen, hitz egin zuen andre Agedarekin, egin zen ezkontza, eta Bautista eta Ignazia herri txiki frantses-euskaldun batera, Zarora, joan ziren bizitzera.